

## **DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDARAKO DEIALDI PUBLIKOA: 2016ean ZEHAR, ADINGABEEN TRATAMENDU PSIKOPEDAGOGIKOA ORDAINTZEA**

**1.- Xedea:** diru-laguntza hauek sare publikoak estaltzen ez duen terapia tratamenduen ordainketa diruz laguntzeko dira, **arazo psikologiko edo emozionalengatik eskolan txarto doazen 14 urtetik beherako kasuetarako.**

Diru-laguntza hauek jasotzeko, beharizan hori ziurtatzen duen sare publiko edota hitzartuko hezkuntza zerbitzuen txostena behar da.

Laguntza honek izaera subsidiario izango du babes-sistema publikoko beste laguntzekiko, eta beraz, laguntza eskatua eta agortua izan beharko du.

**2.- Onuradunaren profila:** diru-laguntza jasotzeko bidea ematen duten adingabeak dituzten familiak, familiako kideek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Eskaera egin baino urtebete lehenago egotea erroldatuta udalerrian, edo aparteko kasuetan, antzinatasun txikiagoarekin baina gizarte zerbitzuen aurretiazko txostenarekin.
- Familia unitateak **ez edukitzea, eskaera egiten den unean, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitza gainditzen duen urteko diru-sarrerarik (27.518,14€)**, edota 12.000 eurotik gorako ondare higikor edo higiezinik ez edukitzea (ohiko etxebizitzaren balioa kenduta).

Familia unitatearen diru-sarrerak jakiteko, kide guztien diru-sarrerak aintzat hartuko dira, hau da, norbere kontura edo hirugarrenen kontura egindako lanaren irabaziak, pentsioak, ondarearengatik diru-sarrerak, sariak, aparteko sarrerak...

***Familia unitateko inork ezin izango du lan-jardunaldiko murrizketa boluntariorik eduki, ezta lan-utzialdian egon ere.***

### **3.- Eskabideak aurkezteko lekua, modua eta epea:**

Eskabideetarako epea 2016 urte osoan zehar egongo da irekita.

Eskabideak, eredu normalduan, eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak Udala Gizarte Zerbitzuetan aurkeztuko dira. Ondoren, gizarte langile batek, elkarrizketa egin ostean, kasu bakoitza balioetsiko du, horretarako ezarritako udal baremoaren arabera.

Laguntza emateko, deialdi honen lehen atalarekin ados, **ezinbestekoa izango da sare publiko edota hitzartuaren hezkuntza zerbitzu edota osasun zerbitzuen txostena, adingabearen eskola ikasketak eragozten duten kausa psikologiko edota emozionalei buruzko irizpena eman ez eta horiek zehaztuz.**

0-6 urte bitarteko adingabeen kasuan, horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen arreta goiztiarreko diru-laguntza indibiduala jasotzeko eskubiderik edota bestelako babes-sistema batzuek ematen duten antzeko izaerako laguntzarik jasotzeko eskubiderik ere ez dutela egiaztatu beharko da.

**4.- Zenbatekoa, ordainketa eta aurrekontu-muga :** tratamenduaren kostua diruz lagunduko da baremoan lortutako puntuen arabera, hau da, aurrekontuan sartutakoaren %100, %75 edo %50, beti ere aurrekontuak ez badu **300 euroko** muga gainditzen. Kasu horretan, ehunekoa 300 euro horiei aplikatuko zaie, eta 300 euro izango da jaso daitekeen gehienezko diru-laguntza.

2016ean zehar emango diren diru-laguntzak horretarako esleitutako udal aurrekontuko partidaren arabera emango dira, gehienez, 15.000 euro banatuz.

Laguntza ekonomikoa ordainduko da tratamenduaren ordainagiria aurkeztu ondoren, hil bakoitzeko **lehen 10 egunen barruan**. Epez kanpo aurkeztuz gero, hil horri dagokion zenbatekoa ez da ordainduko.

Hiru hilabete pasatzen badira onuradunak ordainagiririk aurkeztu gabe, diru-laguntza jasotzeko eskubidea baliogabetuko da.

**5.- Indarraldia:** emandako diru-laguntza, hasiera baten, urtebetekoa izango da, edo urtean zehar, tratamenduak irauten duen aldirakoa. **Gehienez, 3 urtez emango da**, egoera berezirik edo gizarte langilearen aurretiazko txostenik ez badago.

**6.- Betebeharrak:** Laguntza ekonomikoa jasotzen duten pertsonen betebeharra da bat-batean gerta daitekeen edozein egoera, diru-laguntza aldatzea edo etetea ekar lezakeena (diru-sarrerak, tratamenduaren kostua, aldaketak familia unitatean, helbidea, etab.).

Halaber, hilerio justifikatu beharko dute jasotako laguntza Udal Gizarte Zerbitzuetan .

### **2016ko BAREMOA:TRATAMENDU PSIKOPEDAGOGIKOA**

#### **Baremo ekonomikoa** (Gehienez 15 puntu)

<b>PER CAPITA ERRENTA</b>	9.173 <sup>1</sup> €arte.....	15 ptu.
	9.174 € - 10.549 <sup>2</sup> €.....	10 ptu.
	10.550 € - 12.384 <sup>3</sup> €.....	5 ptu.
	12.385 €-tik gora.....	0 ptu.

#### **Gizarte langilearen irizpidearen arabera** (10 puntu)

Familia unitatearen gizarte bazterketa edo arrisku egoerak balioetsiko dira, guraso bakarreko familien egoerak, familiaren osasun egoera eta bestelako zirkunstantzia soziopertsonal edo/eta familiarrak.

#### **Laguntzaren gehienezko ehunekoa kalkulatzeko**

23 - 25 puntu.....Tratamenduaren kostuaren %100

19 - 22 puntu.....Tratamenduaren kostuaren %75

15 -18 puntu.....Tratamenduaren kostuaren %50

15 puntu baino gutxiago..... Tratamenduaren kostuaren %0